

LEHENDAKARIAK DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEKO TOMOGRAFO BERRIA BISITATU DU

- Ospitaleko aurreratuen da eta kasu larrienei erantzun azkar eta eraginkorrago bat emango die.
- Diagnostikorako oso erabilgarriak diren irudiak ematen ditu, kalitate handikoak, eta horrela pazienteentzako terapiarik egokiena zein den erabaki dezakete medikuek.
- Tomografo konputerizatu berria lortzeko 600.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egin da. Aurreko astelehenean jarri zen martxan eta, aurreikuspenen arabera, egunean 35 pazientek erabili ahal izango dute.
- Orain arte larrialdietako zerbitzuan erabiltzen zen tomografoa Groseko anbulatoriora eramango da.

Joan den astelehenean, irailak 26, OTA berria martxan jarri zen Donostia Unibertsitate Ospitaleko larrialdietako zerbitzuan. Horren bidez, **erantzun azkar eta eraginkorrago bat eman nahi zaie kasurik larrienei**. Iñigo Urkullu lehendakaria, Jon Darpón Osasuneko sailburua eta Jon Etxeberria Osakidetzako zuzendari nagusia alboan zituela, gailu berria ezagutzera joan da gaur goizean Donostia Ospitalera. Bertan, larrialdietako zerbitzuko eta erradiologiako profesionalekin bildu da, eta «Hemodinamikoki egonkorak ez diren paziente politraumatizatuentzako laguntza-programaren» berri eman diote. Paziente horien bizi-kalitatea, dudarik gabe, hobetu egingo da gailu berri honi esker.

Tomografo konputerizatu berria ezinbesteko tresna da paziente larri eta klinikoen diagnostiko-prozesuetarako. Izan ere, kalitate handiko irudiak lor ditzake teknika azkar, erabakigarri eta ez-inbaditzaile baten bidez, eta irudien errendimendu diagnostiko altuari esker medikuentzat errazagoa izango da pazienteekin erabili beharreko terapia hautatzea.

Donostia Unibertsitate Ospitalean, detektagailu anitzeko presazko 12.431 tomografia konputerizatu egin ziren iaz, 34,05 egunean batez beste. **“Ekipamendu berri honek 600.000 euro baino gehiagoko inbertsioa izan du, eta horri esker Osakidetzak erantzun are azkar eta eraginkorragoa eman ahal izango die iktus bat edo barne-hemorragiak sufritu dituzten pazienteei, edo istripu baten ondorioz politraumatismo larria dutenei, bihotzeko minak dituztenei, etab.”** adierazi du **Iñigo Urkullu lehendakariak Donostia Unibertsitate Ospitaleko hitzaldian.** Tomografo konputerizatu berria, gainera, haurrekin ere erabili ahal izango da larrialdietan, erradiazio-dosia murriztu eta kontrolatzeko sistemekin erradiazio-dosia optimizatzeko aukera ematen duelako. Horrela, dosia % 40 eta % 80 artean murriztu daiteke, diagnostikoak kalitaterik galdu gabe.

Lehen larrialdietako zerbitzuan erabiltzen zen tomografo konputerizatua Groseko ambulatoriora eramango da. Osakidetzaren Gipuzkoako osasun-zentro bateko lehen tomografo konputerizatua izango da, eta horri esker erabiltzaileek hobekuntza nabaria izango dute irisgarritasunari dagokionez.

Urkullu lehendakariak azaldu duenez Osakidetzako profesionalen aurrean hitzaldian, **“Donostialdeako ESIan egiten den inbertsio honi datorren legealdirako aurreikusita daudenak gehitu behar zaizkio. Horien artean daude 4 dimentsioko azeleragailu lineal bat martxan jartzea datorren urtean, onkologiako prozesuak definizio handiko teknologiarekin tratatzeko; Donostian lehen mailako arretako bi zentro irekitzea, Alde Zaharrean eta Aieten; eta, Gipuzkoa mailan, Eibarko Ospitalea zabaltzea.”** Halaber, Urkullu lehendakariak nabarmendu du aurreko legealdi honetan hasitako berrikuntza teknologikoaren bidea jorratzen jarraituko dela. Izan ere, 4 OTA berri dira legealdi honetan, Arabako eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleetan, Urdulizko Ospitalean eta gaur lehendakariak bisitatu duen Donostia Unibertsitate Ospitalean.

EL LEHENDAKARI VISITA EL NUEVO TAC DE URGENCIAS DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA

- **Es el más avanzado del hospital y dará una respuesta más rápida y eficaz a los casos más graves.**
- **Proporciona imágenes de alta calidad y elevado rendimiento diagnóstico para decidir la línea terapéutica adecuada a los pacientes.**
- **El nuevo Tomógrafo Computerizado ha supuesto una inversión de más de 600.000 euros y está en pleno rendimiento desde el pasado lunes y se calcula que podrá ser utilizado por 35 pacientes al día.**
- **El equipo TC que hasta ahora se utilizaba en el servicio de urgencias se ubicará en el Ambulatorio de Gros.**

Desde el pasado lunes 26, el Hospital Universitario Donostia tiene en funcionamiento un nuevo TAC, el más avanzado de todo el hospital, en el Servicio de Urgencias Generales y con él se quiere dar **una respuesta más rápida y eficaz a los casos más graves**. El lehendakari, Iñigo Urkullu, acompañado del Consejero de Salud, Jon Darpón y el Director General de Osakidetza, Jon Etxeberria, ha visitado esta mañana el nuevo aparato y se ha reunido con los y las profesionales de los Servicios de Urgencias y Radiología y le ha sido presentado el proyecto “Programa de asistencia al paciente politraumatizado hemodinámicamente inestable”, paciente que, sin duda, mejorará en calidad con la utilización de este nuevo aparato.

El nuevo TC resulta una herramienta imprescindible para los procesos de apoyo diagnóstico a pacientes graves y críticos porque utiliza una técnica, rápida, resolutive y poco invasiva que proporciona imágenes de alta calidad y un elevado rendimiento diagnóstico, lo que facilitará la decisión de la línea terapéutica a seguir con los y las pacientes.

En el Hospital Universitario Donostia se realizaron el pasado año un total de 12.431 procedimientos de TCMD urgentes, con una media diaria de 34,05. **“Este nuevo equipo, que ha supuesto una inversión de más de 600.000 euros, va a permitir a Osakidetza dar una respuesta aún más rápida y eficaz para pacientes afectados por un ictus, hemorragias internas, pacientes con politraumatismo grave tras un accidente, dolores cardiacos etc.”** ha señalado el Lehendakari Iñigo Urkullu en su intervención en el Hospital Universitario Donostia. Un TC que podrá ser utilizado en pacientes pediátricos urgentes porque sus nuevos sistemas de reducción y control de dosis de radiación, permiten optimizar la dosis de radiación, sin comprometer la calidad diagnóstica, con reducciones de dosis entre el 40 al 80%.

Con anterioridad, el servicio de urgencias contaba con un Tomógrafo Computerizado (TC), que se reubicará en el Ambulatorio de Gros. Será el primero de Osakidetza en Gipuzkoa en el ámbito de los centros de salud, y supondrá una importante mejora para nuestros usuarios y usuarias en accesibilidad.

Tal y como ha señalado el Lehendakari Urkullu en su intervención ante los y las profesionales de Osakidetza **“esta nueva inversión en la OSI Donostialdea se suma a las previstas para esta próxima legislatura entre las que se encuentra la puesta en funcionamiento el próximo año de un nuevo acelerador lineal en 4 dimensiones para tratar con tecnología de alta definición procesos oncológicos, los dos nuevos centros de atención primaria en Donostia, Alde Zaharra y Aiete, y en el territorio de Gipuzkoa, la próxima apertura del Hospital de Eibar.”** Asimismo, el Lehendakari Urkullu ha señalado que se continuará con la renovación tecnológica iniciada en esta legislatura, en la que se han renovado 4 TAC en los hospitales universitarios de Araba y Basurto, en el Hospital de Urduliz y este hoy visitado en el Hospital Universitario Donostia.